Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala · Boletín Oficial de Gipuzkoa

2014ko irailaren 12a, ostirala — 173 — Viernes, a 12 de septiembre de 2014

UDAL ADMINISTRAZIOA — 7 — ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

## ORMAIZTEGIKO UDALA

*Ormaiztegin hileta zibilak baimendu eta egitea arautzen duen Ordenantzaren behin betiko onarpena.*

Ormaiztegiko Udal Osoko Bilkurak, 2014ko uztailaren 15ean egindako ohiko batzarrean, «Ormaiztegin hileta zibilak baimendu eta egitea arautzen duen Ordenantzari» haserako onarpena eman zion.

Kontutan izanik jendaurrean egon den epean ez dela erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, ordenantza hau behinbetiko izaeraz onartuta geratu da. Beraz, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Tokiko Errejimeneko Oinarriak arautzen dituena, 70.2 artikuluak xedatzen duena betez, aipaturiko ordenantza hau argitaratzen da.

*Ormaiztegin hileta zibilak baimendu eta egitea arautzen duen ordenantza.*

SARRERA

Egun, gure ordenamendu juridikoak akonfesionaltasuna bermatzeaz gain, norbanako eta komunitateen askatasun ideologiko, erlijiozko eta gurtzakoa (horretarako adierazpenak errespetatuz) bermatu behar du, legeak babestutako ordena publikoa mantentzeko beharrezkoa den muga bakarrarekin.

Halaber, ezaguna da gure gizartean dagoen aniztasun ideologiko, erlijiozko eta kulturala. Gizarte anitza da, etengabe aldatzean ari dena bere usadio eta gizarte-ekintzen adierazpenari dagokionez.

Hileta zibilak gizarte normalizazioan urrats bat gehiago dira, igarotze-errituak erlijio-konnotazioetatik urrun modu zibil eta laikoan ospatzea eskatzen dutenentzat.

Horrenbestez, ordenantza honekin arautzen da gure herriko gizarte zibila osatzen duten senitarteko, lagun, erakunde eta entitateek beren defuntuentzat, pertsonari agur esateko, egin nahi dituzten omenaldi eta agur-ekitaldien baimen eta ospakizuna.

I. KAPITULUA

PROZEDURAREN HASTAPENA

*1. artikulua.*

Ordenantza honen helburua da Ormaiztegiko Udalaren udalbarrutian gertatzen diren heriotzetarako hileta zibilak egiteko udal lokalen erabilera eta baimenak arautzea da.

*2. artikulua.*

Alkateak edo zinegotzi edota hura ordezten duen funtzionarioak hileta zibiletarako gordetzen diren espazioen erabilera baimen dezake. Horretarako, aldez aurretik, eskaera

## AYUNTAMIENTO DE ORMAIZTEGI

*Aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora para la autorización y celebración de funerales civiles en Ormaiztegi.*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el 15 de julio de 2014, acordó aprobar con carácter inicial la «Ordenanza reguladora para la autorización y celebración de funerales civiles en Ormaiztegi».

Teniendo en cuenta que en el periodo de exposición pública no se han presentado reclamaciones ni alegaciones, la ordenanza ha quedado aprobada definitivamente, por lo que en cumplimiento de lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación íntegra de la citada ordenanza.

*Ordenanza reguladora para la autorización y celebración de funerales civiles en Ormaiztegi.*

PREÁMBULO

Nuestro actual ordenamiento jurídico, debe garantizar además de su aconfesionalidad, la libertad ideológica, religiosa y de culto de los individuos y las comunidades sin más limitación, en sus manifestaciones, que la necesaria para el mantenimiento del orden público protegido por la ley.

Asimismo es conocida la diversidad ideológica, religiosa y cultural de nuestra sociedad, una sociedad plural y en transformación constante en cuanto a la manifestación de sus costumbres y actos sociales.

La realización de funerales civiles supone un paso más en la normalización dentro de la sociedad de este tipo de ceremonias para todos aquellos que demandan la celebración de rituales de paso de una manera civil y laica, alejada de connotaciones religiosas.

La presente ordenanza pretende, por tanto, regular la autorización y celebración que los familiares, amigos y diferentes organizaciones y entidades que componen la sociedad civil de nuestra localidad, quieran realizar a sus difuntos como homenaje o despedida a su persona.

CAPITULO I

INICIACIÓN DEL PROCEDIMIENTO

*Artículo 1.*

La presente ordenanza tiene por objeto regular la autorización y utilización de los locales municipales para la realización de funerales civiles por fallecimiento en el término municipal del Ayuntamiento de Ormaiztegi.

*Artículo 2.*

El Alcalde o concejal y/o funcionario/a en quien delegue, podrá autorizar el uso de los espacios reservados para los funerales civiles, previa recepción de la documentación que debe

EK\CV GAO-I-2014-08185

Ormaiztegiko Udalaren erregistrora bideratzen duen senide edo pertsonak horri dagokion dokumentazioa igorri beharko du.

*3. artikulua.*

Hileta zibilak egiteko eskaerak Alkate Txit Jaunari/Andereari zuzendu beharko dira eta Ormaiztegiko Udalean aurkeztu beharko dira Herri administrazioen Araubide Juridikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean baimendutako bideetako bat erabiliz.

Hileta zibilak egiteko eskaeren izapideak egoerak eskatzen duen berehalakotasun-printzipioaren arabera gauzatuko dira, eskumeneko pertsonari helaraziko zaizkiolarik ebazpena eman dezan.

*4. artikulua.*

Egiten diren eskaeretan barneratu beharko dira:

a) Ospakizunaren baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa.

b) Zendutako pertsonaren izen-abizenak.

c) Heriotza-ziurtagiria.

d) Hileta zibila egiteko lehenesten den egun eta ordua adierazi beharko da eskaeran.

e) Udala, ahal duen neurrian, eskatzaileek adierazitako data eta eguna errespetatzen saiatuko da, eskatzaileek aurkeztutako eskarien hurrenkera aintzat hartuz. Hurrenkera hori aldatu egin daiteke kasu berezietan, betiere, aldaketa hori argudiatuz.

f) Eskariaren leku eta data.

g) Eskatzailearen sinadura eta bere nortasuna egiaztatzen duen agiria, horretarako edozein bide erabiliz.

h) Eskaerarekin batera, udal-eraikinak erabiltzeagatik finkatu daitekeen tasa arautzen duen ordenantza fiskalean ezartzen den ordainketa egin izanaren agiria atxiki beharko da.

i) Ekitaldiaren eta erabiliko den materialaren deskribapen laburra.

*5. artikulua.*

Eskaeraren zuzenketa eta hobekuntza. Eskaeran 4. artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen ez badira, interesdunari jakinaraziko zaio ahalik eta lasterren, aldez aurretik edo ondoren, gabezia zuzendu edo dagozkion dokumentuak atxiki ditzan.

## II. KAPITULUA

## BIDERATZEA

*6. artikulua.*

Hileta zibila ospatzeko egun eta ordua Alkateak, zinegotziak edo hura ordezten duen funtzionarioak finkatuko du, aldez aurretik kudeaketaz arduratzen den sailak egindako espedientean oinarrituta. Hori guztiori eskaerak aurkezteko hurrenkera aintzat hartuz eta, era berean, ahal den neurrian, eskatzaile bakoitzak adierazitako lehentasunezko hurrenkera errespetatuz.

*7. artikulua.*

Eskaera ikusirik, Alkateak edo zinegotziak edo hura ordezten duen funtzionarioak hileta zibila ospatzeko udal lokala zehaztuko du.

*8. artikulua.*

Hileta zibilak ezin izango dira gorpua aurrean dela egin, hala ere hildakoaren errautsak dituen kutxa bertan dela egin ahal izango dira.

remitir el familiar o persona que dirija su solicitud al registro municipal del Ayuntamiento de Ormaiztegi.

*Artículo 3.*

Las solicitudes de realización de funerales civiles, serán dirigidas al Excmo. Sr./Sra. Alcalde/sa y se presentarán en el Ayuntamiento de Ormaiztegi en cualquiera de las formas permitidas por la Ley 30/1992, del 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

La tramitación de las solicitudes para la realización de funerales civiles se regirán por el principio de inmediatez que requieren las circunstancias, siendo remitidas a la persona competente para su resolución.

*Artículo 4.*

Las solicitudes que se formulen deberán contener:

a) Nombre, apellidos, domicilio e identificación de la persona que solicita la autorización de la celebración.

b) Nombre y apellidos de la persona fallecida.

c) Certificado de defunción.

d) Indicar en la solicitud, día y hora de preferencia para la celebración del funeral civil.

e) El Ayuntamiento atenderá en la medida de lo posible la preferencia en cuanto a fecha y hora de los solicitantes, ateniéndose al orden de presentación de las solicitudes. Dicho orden podrá ser alterado en casos extraordinarios y siempre que se motive tal alteración.

f) Lugar y fecha de la solicitud.

g) Firma del solicitante y acreditación de la autenticidad de su identidad por cualquier medio.

h) A la solicitud deberá acompañarse resguardo del pago de la tarifa que, en su caso, establezca la ordenanza fiscal reguladora de la tasa por utilización de edificios municipales.

i) Breve descripción del acto, y material que se vaya a utilizar.

*Artículo 5.*

Subsanación y mejora de la solicitud. Si la solicitud no reúne los requisitos que señala el artículo 4, se requerirá al interesado con la mayor urgencia posible para que, con antelación o posteriormente, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos.

## CAPITULO II

## INSTRUCCIÓN

*Artículo 6.*

Previo expediente instruido a tal efecto por el departamento al que se le encomiende la gestión, el Alcalde, concejal o funcionario en quien delegue resolverá la solicitud presentada, indicando en caso de ser favorable, el día y hora de la celebración del funeral civil. Ello atendiendo al orden de presentación de las solicitudes y atendiendo asimismo en la medida de lo posible al orden de preferencias indicado por cada solicitante.

*Artículo 7.*

A la vista de la solicitud, el Alcalde o concejal o funcionario/a en quien delegue, determinará el local municipal en el que haya de celebrarse el funeral civil.

*Artículo 8.*

Los funerales civiles no podrán ser de cuerpo presente, aun cuando podrá estar presente la urna con las cenizas del finado.

EK\CV GAO-I-2014-08185

*9. artikulua.*

Hileta zibilak astelehenetik ostiralera egingo dira, horretarako beharrezkoak diren udal-baliabideak gaituko direlarik.

*10. artikulua.*

Hileta zibilak egiteko ordutegia 10-14 eta 17-20 orduen artean finkatzen da. Ekitaldiaren iraupena gehienez hirurogei minutukoa izango da.

III. KAPITULUA

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

*11. artikulua.*

Horretarako bideratzen diren aretoak egoera onean mantenduko direla bermatze aldera, ekitaldira bertaratzen direnek ezingo dute lokalaren barnean hura kaltetu edo hondatzea eragin dezakeen ekintzarik egin, udal-eraikin eta lokalen lagapena arautzen duen ordenantzan ezarritakoaren kalterik gabe.

*12. artikulua.*

Ekitaldia burutzeko aretoa ekitaldiaren seriotasuna bermatzeko moduan egokituko da. Dena den, senitarteko edo lagunek era berezian hornitu edo apaindu nahi dutenean, udal-arduradunari jakinarazi beharko diote behar bezala jarduteko beste denbora emanez, betiere, lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatuz eta interesdunari kontura izanik horren ondorioz sor daitezkeen gastuak. Ekitaldia burutzeko zerbitzu osagarriak interesdunak emango ditu eta bere konturakoak izango dira. Hala ere, Udalak horiek gainbegiratuko ditu.

*13. artikulua.*

Ekitaldiaren edukia ezingo da laidogarria izan eta ezingo da beste pertsona baten ideia edo printzipioen aurka egin.

*14. artikulua.*

Ordenantza honetan aurreikusten ez den guztirako, udal-arduradunen argibideei jarraitu beharko zaie.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean izango da indarrean. Hala, indarraldi hori mantenduko da hura aldatu edo bertan behera uztea erabakitzen den arte. Erabaki hori Udalbatzak hartu beharko du.

Ormaiztegi, 2014ko irailaren 10a.—Rosa M.ª Urquia Goitia, alkatea. (8185)

*Artículo 9.*

Los funerales civiles se celebrarán de lunes a viernes, habilitando al efecto los recursos municipales necesarios.

*Artículo 10.*

El horario para la celebración de los funerales civiles será de 10 a 14 horas y de 17 a 20 horas. La duración de la ceremonia será de un máximo de sesenta minutos.

CAPITULO III

DERECHOS Y OBLIGACIONES

*Artículo 11.*

A fin de garantizar la buena conservación de las salas dedicadas al efecto, los asistentes a la ceremonia se abstendrán de realizar en el interior del mismo cualquier acto que pueda suponer deterioro o menoscabo de las dependencias, sin perjuicio de lo establecido en la ordenanza reguladora de la cesión de edificios y dependencias municipales.

*Artículo 12.*

El salón en que se celebre el acto estará adecuado para la solemnidad del mismo. No obstante, cuando deseen los familiares o amigos ornamentarlo o acondicionarlo de forma especial, deberán hacerlo saber al responsable municipal con la antelación suficiente para que resuelva lo que proceda, respetando siempre la armonía y características del lugar y siendo a cargo del interesado los gastos que con este motivo se produzcan. Los servicios complementarios para la celebración del acto, los aportará el interesado e irán a su cargo. No obstante, habrá una supervisión de los mismos por parte del Ayuntamiento.

*Artículo 13.*

El contenido del acto no podrá ser ofensivo ni atentar contra las ideas o principios de otras personas.

*Artículo 14.*

En todo lo no previsto en esta ordenanza, se deberán seguir las instrucciones de los responsables municipales.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el Pleno del Ayuntamiento.

Ormaiztegi, a 10 de setiembre de 2014.—La alcaldesa, Rosa M.ª Urquia Goitia. (8185)

EK\CV GAO-I-2014-08185